

ZAINTZA

ADINEKOEI LAGUNTZEKO INKESTA

UDALAK DUELA HILABETE BATZUK ERABAKI ZUEN UDALERRIKO ADINEKOEN BIZI KALITATEA HOBETZEKO DINAMIKAK EGITEA, ETA DIAGNOSTIKO BAT EGITEKO INFORMAZIOA BILTZEN HASITA DAGO.



Urrabustaizko Udala diagnostiko bat egiten dabil udalerriko adinekoen bizi kalitatea hobetzeko. Helburu horrekin, hainbat alor lantzen dabil: irailean bilera ireki bat antolatu zuen Urrabustaizko 70 urtetik gorako pertsona guztientzat; adineko hainbat pertsonarekin elkarriketa pertsonalizatuak ere egin ditu, haien egoera ezagutzeko; eta udalerriko 70 urtetik gorako pertsona guztiei inkesta formulario bat bidali die etxera. Udalerriko 70 urtetik gorako kolektibo hori 163 pertsonak osatzen dute.

Inkestaren helburua da udalerriko adineko pertsonak nola dauden hobeto jakitea, eta beren egunerokotasuna zer gauzek hobe dezaketen jakitea, behar dutena eskura izan dezaten eta komunitatearen parte senti daitezen. Horretarako, inkestako galdetegiak sakontzen du inguru hurbilean seniderik eta lagunik duten ala ez, bakardadean denbora asko ematen

duten, kalera asko edo gutxi ateratzen diren, eguneroko zereginen batean laguntza behar duten, beren etxebizitza beren beharretara egokituta dagoen eta etxebizitza komunitario bat, eguneko zentro bat edo egoitza bat erabiltzeko interesa duten, besteak beste.

Inkesta beteta, Udaletxera

Inkesta bete ondoren, Urrabustaizko Udaletxean jarritako postontzi batean utz daiteke. Okindegian jarritako postontzia kendu dute, baina Udalak Udaletxean mantentzea erabaki du, inkesta gehiagoren emaitza jasotzeko. Jakina, bildutako informazioa konfidentziala da. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 945 437080 telefonora.

Gai honekin lotuta eta adinekoen kolektiboa ardatz hartuta, Kukuso taldeak bilera ireki bat antolatu du azaroaren 9rako Zuian..

HEZKUNTZA

ESKOLA LAGUNTZA BOLUNTARIOA MARTXAN!

UDALAK BORONDATEZKO ESCOLA LAGUNTZARAKO TALDE BAT KOORDINATU DU 2024-2025 IKASTURTERAKO, IZARRAKO ESKOLAKO 1., 2., 3. ETA 4. MAILAKO IKASLEENTZAT.

IZARRA HERRI ESCOLA
CURSOS 1º, 2º, 3º, 4º MAILAK

APOYO ESCOLAR VOLUNTARIO
BORONDATEZKO ESCOLA LAGUNTZA

CURSO 2024-2025 IKASTURTEA

¿QUIERES IMPARTIR CLASES DE APOYO EN LA ESCUELA?
EMANGO ZENITUZKE LAGUNTZA-KLASEAK ESKOLAN?

INSCRIPCIÓN IZEN EMATEA:
KULTURAZ@URKABUSTAIZ.EUS
TEL: 945 43 70 80
TEL: 667 47 98 67

Laguntza taldea urriaren 21ean hasi da lanean, eta oraingoz zortzi boluntariok osatzen dute. Asteleheneretik ostegunera, egun bakoitzean kurtso baten ikasleei ematen die laguntza, eta ikastaro bakoitzeko 6-7 pertsona dabilta laguntza eskolak jasotzen. Eskolako irakasleek beren beharren arabera aukeratu dituzte ikasle horiek.

Udalak jakinarazi du ekimenak boluntario gehiago behar dituela laguntza emateko. Interesa dutenek izena eman beharko dute kultura2@urkabustaiz.eus helbidera idatziz edo 945 437080 telefono zenbakira deituz.

EAJK ETA PSEK ERAGOTZI DUTE ETXEKO OSPITALIZAZIOA BERRESKURATZEA

EUSKO LEGEBILTZARRAK EAJREN ETA PSEREN EBAZPEN BAT ONARTU DU, ARABAKO UDALERRI GUZTIETAN ETXEKO OSPITALERATZEA BEREHALA BERREZARRI BEHARREAN, "PIXKANAKA AURRERA EGITEA" ZEHAZTEN DUENA.



Urkabustaizko Udalak 2023ko maiatzean eskatu zion publikoki ahaldu nagusiari Arabako landa sektorean Osakidetzak Euskal Herriko gainerako lurraldeetan ematen dituen ospitale zerbitzu berberak izatea eta prestazio horretan dagoen diskriminazioa ezabatzea. Zehazki, 1983tik Euskal Herrian ematen den Etxeko Ospitalizazio Zerbitzua (HaD) aipatu zuen. Osakidetzak Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrri guztietako herritarrei eskaintzen die, baina Araban kanpoan uzten ditu Urkabustaiz, Kuartango, Pobes-Ribera Alta, Erriberabeitia, Urizaharra eta Arabako Mendialdea, besteak beste.

Udalbatzak onartutako eskaera

Eskaera hori egitea Urkabustaizko osoko bilkuran onartu zen, 2023ko apirilean, eta testu hau jasotzen zuen: "Urkabustaizko ohiko udalbatzak, 2023/04/26an, aho batez onartu zuen udalerrian ospitale zerbitzu hori ematea eskatzeko mozioa.

Lurralde Historiko honetako herritarren interesak defendatzearen ondorioz, eta Arabako Foru Aldundiak dituen lurralde orekaren printzipioak bermatze aldera, Urkabustaizko Udalak babesa eta laguntza eskatu dizkio Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aurrean egin beharreko kudeaketak egin ditzan, eta sail horrek Arabako Lurralde Historiko osan hautagai diren pazienteei arreta eman diezaien, Etxeko Ospitalizazio zerbitzuaren bidez, ahalik eta lasterren".

Urte eta erdi geroago, aldaketarik ez

Eskaera egin zenetik ia urte eta erdi igaro denean, Urkabustaizko Udalak ez du begi onez ikusi Arabako landa sektore osoan etxeoko ospitalizazio zerbitzua behin betiko eta berehala ezartzea ez onartzea.

Udalak azpimarratu duenez, zerbitzu horrek, Osakidetzak bere dokumentuetan aitortzen duenez, oso abantaila garrantzitsuak dakarzikie erabiltzaileei, ospitaleari eta osasun sistema osoari.

- Pazientearentzat eta familiarentzat: familia ingurunean lehenbailehen sartzea errazten du, ospitaleratzearen berezko arriskuak gutxitzen ditu, hala nola instituzionalizazioa, gaixoaren gizarte isolamendua edo infekzio nosokomialaren arriskua, lehenbailehen sendatzen laguntzen du, eta, azken batean, bizi kalitate hobea ematen da gaixotasunaren prozesuan zehar.

- Ospitalerako: bere zerbitzua handitzen du eta arreta tradizionala malgutzen du, komunitateari irekitako asistentzia alternatiba bat gehitzen baitio. Osasun kudeaketan laguntzeko tresna gisa jarduten du, ohe baliabideak egokiago erabiltzeko edo etorkizuneko ospitaleratze akutuan dituen beharrak planifikatzeko.

- Osasun Sistemarako: zerbitzua modernizatzen laguntzen du, arreta malguak eta pazienteen beharretara egokituak planifikatzen eta arreta espezializatuaren eremuan etorkizuneko arreta beharrak planifikatzen.

GANADU AZOKA ARRAKASTATSUA

EGURALDIA TXARRA IZAN BAZEN ERE, URKABUSTAIZKO XIV. GANADU ETA NEKAZARITZA AZOKAK JENDE ASKO ERAKARRI ZUEN, ETA ARTISAUTZA, NEKAZARITZA ETA, JAKINA, ABELBURU UGARI IZAN ZIREN ERAKUSGAI ETA SALGAI.



Urkabustaizko Ganadu eta Nekazaritza Azoka ezinbesteko hitzordua da Urkabustaizko herritarrentzat eta beste udalerritako biztanleentzat. Beste behin ere giroa oso ona izan zen.

XIV. edizio honetan 179 abelburu jarri ziren ikusgai eta salgai kasu batzuetan: 82 behi eta zaldi azienda, eta 97 ardi eta ahuntz azienda. Artisautzari dagokionez, 45 postu izan ziren. Eta inguruetan nekazaritzako produktuen hainbat postu, taloak eta txosna, besteak beste.

Hainbat eskaera presente

Gainera, hainbat kolektibok beren eskaerak ezagutzera eman zituzten azokaren testuinguruan, hala nola megaproiektuen aurkako plataformak kontzentrazio handia egin zuen; eta UAGA sindikatuak (Arabako Nekazari eta Abeltzain Elkarteak) postu bat jarri zuen Otsoaren Kudeaketa Planaren aurka agertzeko eta haien bizimodua arriskuan ikusten duten abeltzaintza ustiatzearen alde egiteko.



“NIRE OBSESIO BAT DA EUSKALDUNTASUNA URRUN BIZI DUTEN HORIEK GUZTIAK GURE HIZKUNTZA ETA KULTURARA HURBILTzea”

JON MAIA BERTSOLARI, MUSIKARI, IDAZLE ETA POLIFAZETIKOAK ‘KANTU BERRI BAT GARA’ PROIEKTUAREN EMANALDIA ESKAINIKO DU AZAROAREN 30EAN URKABUSTAIZKO KULTUR ETXEAN.



Foto: Bidean

Musikari handiek lagunduta (Gorka Hermosa, akordeoia; Pello Ramirez, txeloa; Nacho Soto, pianoa eta sintetizadorea; eta Nerea Quincoces, perkusioak eta ahotsa), Maiak bere bigarren disko-liburu arrakastatsua aurkeztuko du. Euskal musikaren klasiko batzuen errepaso egingo du eta euskal nortasunean eta gizartearen galdera eta gogoeta handietan sakontzen duten konposizio propioak ere eskainiko ditu. Ikuskizun hau Euskal Herri osoko auditorioak betetzen dabil.

Kantuek bizitza ematen digute? Garena egiten gaituzte? Bai. Eta baita alderantziz ere: gu garetik sortzen dira kantuak. Gure kontzertuak eta disko liburua abiatu ziren ezagutzen den euskal kantu zaharrenetik (‘Bereterretxeren khantoria’). Orain dela 600 urtetik gora idatzi zen borda batean, eta ahoz aho egin du bidea orain dela 100 bat urte lehenengoz idatzi zen arte. Eta, pentsa, orain Spotifyn dago. Izan gaitetzke erreinu, autonomia... baina kantu horren ibilbidean dago gure iraupena herri bezala. Horregatik, ‘Kantu bat gara’.

Une puntual eta Karidadeko Benta proiektuaz gain, denbora pasa zenuen kontzertuak egiten hasi artean, baina musikak izugarriko garrantzia dauka zuretzat, ezta? Hezurbeltzak taldea ere tartean egon zen, migrazioaren gaia plazaratzeko baliatu genuena, eta hor ‘L Lorca Lauaxeta’ antzezlaneko testuak musikatu genituen. Askoz lehenago, 18 urterekin, Gasteizen bizi nintzela, Negu Gorriak-erako hitzak idatzi nituen. Gero etorri ziren Mikel Urdangarin, Gari... eta gaur arte. Letragile gisa beti izan dut harreman handia musikariekin, eta diziplina askotan aritzen banaiz ere, dagoeneko sei liburu, zortzi dokumental eta zazpi disko egin ditut. Hala ere, gehien egin dudana bertsoan aritzea da: 12 urterekin hasi nintzen, dagoeneko 40 urte.

Errelatoak halako pisua hartzen duen garai hauetan, zuk gure herriaren historiaren transmisioa daukazu ardatz... Beti esaten dut ez dudala disko hauek egin abeslari izateko, baizik eta mezuak zabaldu eta gizarteratzeko, gure identitatea gartzeko. ‘Kantu bat gara’ edo ‘Kantu berri

bat gara’ ikustera datozenek badakite hau ez dela soilik musika izango.

Eta nola azalduko zenuke ikusiko duguna? Nik ere ez dakit definitzen. Ebentto diskurtsibo bat. Bidaia bat denboran, gure identitatea, elkarbizitza, hizkuntza, Euskal Herriaren ikuspegi kritiko-artistikoa...

Odei Barroso rapero eta bertsolariaren antzera, zuk ere bazterretako Euskal Herria errebindikatzen duzu ‘Euskal Herria B’ kantuan... Ni abiatzen naiz esentziatik, euskal kantu zaharrenetatik; eta azken kantua ‘Euskal Herria B’ probokatzailerik eta zirikatzailerik da, badirelako herri eta zonalde batzuk inoiz ez ditugunak aipatzen. Ez dira idealak, ez daude homologatuak: nekazari herri txikiak, hirietako periferiatako auzo txiroak..., hain zuzen ere, Euskal Herria irudikatzen dugunean gogoratzen ez ditugun pertsonak eta lekuak. Zergatik goraiatzen dugu beti politena eta topikoena, gure maitasun eta laguntza gehien behar dutenak badira euskal identitate eta kulturaren ahulago dutenak? Horiek ez dira inoiz agertzen gure postal eta ipuinetan.

Zure fijazioetako bat da euskal nortasun berria eraikitzea... Bai. Ezinbestekoa da identitatea etengabe eraldatzen eta berritzen joatea. Niretzat ‘Euskal Herria B’ horretan bizi direnak dira euskararen lehen lerroa: euskara galdu zen lekuetan euskaraz bizi izaten ahalegintzen direnak. Horiek ez daukate euskara jaso ezta euskalkirik. Eta badira, baita ere, euskalduntasuna oso urrun bizi dutenak; adibidez, Durangoko Azoka zer den ere ez dakitenak. Nire obsesio bat da horiek guztiak gure hizkuntza eta kulturara hurbiltzea.

Zer aurkitu dezakegu ‘Kantu berri bat gara’ disko-liburu ikuskizunean ‘Kantu bat gara’-rekin alderatuta? ‘Kantu bat gara’ nire kantu ezagun batzuen antologia da, letragile lanaren errepasu bat. Eta, aldiz, ‘Kantu berri bat gara’ gehiago da sorkuntza berria: lau kantu berri ditu, bertsoa ere berria da, eta gero badira hainbat bertso. Lehen proiektuak izan zuen arrakasta ikusita, beste pauso bat ematea erabaki genuen.

Egona zara aurretik Urkabustaizen? Bai. Bertsoan birritan egona naiz, baina abesten oraindik ez. Bigarren disko-liburu honen ahalegin berezi bat egiten gabilta zirkuito handietatik kanpo dauden herri eta zonaldeetara ere joateko. Bada helburu garrantzitsu bat profil hori daukaten herri eta zonaldeetara ere joatea. Gogoz gaude.



Lurdes Iriondo Mujika

Donostia, 1937- 2005

Gerraosteko ikastolen inguruneari lotuta, 1964an euskaraz abesten hasi zen, Andoaingo ikastolarako dirua lortzeko asmoz. Gitarraz lagundutako euskarazko musikak, garaiko egoerari buruzkoak, benetako arrakasta izan zuen. Loiolako Herri Irratiak eta Joxe Mari Iriondo kultur sustatzaileak genero berri hau ezagutzera eman zuten. Ingelesak eta gaztelaniak monopolizatutako giro batean apalki sartzen den euskal musika berriaren hastapenak dira.

Mikel Laboa, Josean Artze, Xabier Lete, Benito Lertxundi eta abarrek Ez dok amairu taldea osatu zuten, eta Lurdes izango zen figura nagusietako bat.

Geroago, Zazpiribai ikuskizunean hartuko du parte, eta frankismoaren azken urteetako debekuak jasango ditu. Disko txiki batzuk eta LP batzuk grabatzen ditu. Haurrentzako ipuinei eskainitako hainbat diskotan ere hartu zuen parte, hala nola Ortzadarra edo Maripetralin. Ondoren, euskal folklorean oinarritutako haur-testuak lantzeari eskaini zitzaion: Martin Arotza eta Jaun Deabrua (Bilbao, Kimu Saila, 1973, 133 or.) eta Buruntza azpian, 1975, Mensajero, 124 p. Ipuin batzuek Ortzadarra (1978) bilduma osatzen dute, edo Lotara joateko ipuinak (Erein, 1982), Andu Lertxundi eta Asun Balzolarekin batera. ETBrekin ere aritu zen lankidetzan.

Vinculada al mundo de la ikastola de la postguerra, en 1964 comienza a cantar en euskera haciéndolo para obtener fondos para la ikastola de Andoain. La música en euskera acompañada de guitarra y sobre temas actuales causa verdadera sensación. Radio Popular de Loyola y su promotor cultural José Mari Iriondo dan a conocer este nuevo género incipiente. Son los comienzos de la nueva música vasca que irrumpe, humildemente, en un ambiente monopolizado por el inglés y el castellano.

Junto con Mikel Laboa, Josean Artze, Xabier Lete, Benito Lertxundi, etc. forman el grupo Ez dok amairu y Lurdes será una de las figuras centrales

Más tarde formará parte del espectáculo Zazpiribai, sobre sus actuaciones lloverán las prohibiciones de los últimos años del franquismo. Graba varios discos pequeños y algún LP. Apareciendo también varios discos dedicados a cuentos infantiles como Ortzadarra o Maripetralin. Dedicada últimamente a la elaboración de textos infantiles basados en el folklore vasco son varios sus títulos como Martín Arotza eta Jaun Deabrua (Bilbao, Kimu Saila, 1973, 133 pp.), o Buruntza azpian, 1975, Mensajero, 124 p. Algunos cuentos constituyen Ortzadarra (1978), o Lotara joateko ipuinak (Erein, 1982) junto con Andu Lertxundi y Asun Balzola. Colabora también con ETB.